

2. BALIO PROPOSAMENA:

Bezeroa definitu ondoren, gure produktu edo zerbitzuarekin zer behar asebeteko dugun edo zerrarazo konpontzen lagunduko diogun erabaki behar dugu. Aldagai asko har daitezke kontuan (diseinua, prezioa, azkartasuna, erosotasuna...).

Aurkezten dugun zerbitzu edo produktuak hainbat onura multzo eskaintzen dizkie familiei edo kontsumitzaileei. Proposamen edo baliabide garrantzitsuena, haiei ureztatzeko era erraztea da, hau da, haiek ez egin beharra izatea eta makina edo gure zerbitzuaren bitartez ureztatzea haien lorontziak eta loreak. Horrela landatutakoaren biziraupena bermatuko genuke inolako betebeharririk gabe.

Gainera, bi mota aurkezten ditugu produktuaren ur-kupula beteta irauteko. Aukerakoa da instalazio bat jartzea, non horren bitartez egiten duen euriarekin beteko litzateke. Horrela nahi ez izanez gero, derrigorrezkoa izango litzateke ur-kupula astean behin kontsumitzaileak betetzea landarea ureztatzeko. Produktuak funtzionatu ahal izateko, argia edo elektrizitatea behar da, eta energia-iturri hori eguzkiaren izpien edo argitasunaren bitartez lortuko genuke. Horrela, kontsumitzaileari produktua kargatzeko beharra kenduz.

Gure zerbitzuaren instalazioa digitalki eskatu daiteke, hau da, internet bidez. Produktua bera bakarrik ere alda eskatu, hau da, kontsumitzaileak berak ureztatzeko aukera nahi izan balu, horrela ere merkeagoa izango litzateke.

